

Luis Orduñak eta Cía Mago Hodei Magoak aurkezten dute:

MAGIC MELODY

Bandentzako magia ikuskizuna



Mago
Hodei
magoa

www.magohodeimagoa.com

SINOPSISIA

MAGIC MELODY aurkezten dizugu, zure herrian, zure bandarekin batera egin dezakegun ikuskizuna. Kontzertu desberdina, banda kontzertuetara edo magia ikuskizunetara ohitutako publikoa harritzeko prest. Magia eta musika bat egiten duten familia osorako emanaldia, bai euskaraz bai gaztelaniaz disfrutatu daitekeena.

Bandentzat bereziki zaila izaten da adin guztietako publikoetara iristea, batez ere haur-publikoa denean.

Hau da, hain zuzen ere, MAGIC MELODYren puntu garrantzitsuenetariko bat, banda profesional eta amateurrentzako ikuskizun bikaina, zuen bandako musikariek eta publiko bai txiki bai helduak disfrutatu eta gogorraziko dutena denbora luzez.

Eszenaratze koloretsua, erritmoz eta sorpresaz betea, ilusio handiak eta publiko osoak parte hartuko duen joku handia ere; non Hodeiren presentzia eszenikoa eta bere umore bukaezina zuen bandarekin batera nagusi izango dira; gainera, egun batez, musikariak magia jolasen parte izango dira.



IKUSKIZUNAREN MUSIKA

Musika ikuskizun honetako oinarrizko osagaia da. Horregatik, parte-hartzen duten 20 zati musikalen aukeraketa prozesu luzea izan da. Musika honen eginkizunak hiru dira:

- Ikuskizunaren erritmoan lagundu.
- Publikoarengan gozamina eragin bere adina kontuan hartu gabe.
- Interpretatzaileentzat erakargarria izatea.



Aukeratutako errepertorioa edozein banda amateurrentzat egokia da: bandentzako errepertorio originaletik (Jacob de Haan), zine musikara (Piratas del Caribe edo Indiana Jones), pop (Nino Bravo), jazz (Benny Goodman) edo musika klasikoko (Edvar Grieg edo Jaques Offenbach) interprete handietatik pasatuz. Gainera, Magic Melodytik kontzertu bakoitza desberdina dela uste dugu, hori dela eta zati musikal bat parte hartzen duen bandak proposatu dezake.





Fitxa artistikoa

Zuzendari musikala

Luis Orduña

Zuzendari artistikoa

Cía Mago Hodei Magoa

Ilusionista

Odei Domingo (Hodei magoa)

Eszenatokiko laguntzailea eta errejidorea

Leire Tejero


Soinu eta argi teknikaria

Erik Aldaz

Zer eskaintzen dugu?



– ALDEZ AURRETIK –

- Material musikal guztiak (partiturak eta partitellak) abestien audioekin batera bidaliko dira.
 - Bandaren zuzendari eta zuzendari musikalaren, Luis Orduñaren, arteko kontaktu jarraia.
 - Emanaldi aurretiko entsegua zuzendari musikalarekin, kontzertua baino bi aste lehenago (horretarako Luis Orduña bandaren ohiko entsegu tokira hurbilduko da). Data eta ordua banda eta Luisen artean zehaztuko da.
 - Emanaldia egingo den tokiarekin beharrezkoa den koordinazio tekniko guztia Cía Mago Hodei Magoaren ardura izango da.
- 

– EMANALDIAREN EGUNEAN –

· Pertsona hauek hartuko dute parte:

Luis Orduña (zuzendari musikala)

Odei Domingo (ilusionista)

Leire Tejero (eszenatokiko laguntzailea eta errejidorea)

Erik Aldaz (soinu eta argi teknikaria)

· Muntai tekniko guztia konpainiaren ardura da.

· Emanaldiaren egunean entsegu orokorra egingo da bandarekin.

· Pertsona bakoitzeko 7 kartako pakete bat banatuko da, ikusle guztiek joku interaktiboa egin dezaten.

· Bai soinua bai argiztapena konpainiako teknikariak kontrolatzen du, ez da beharrezkoa bandak pertsona bat honetarako jartzea.



SORTZAILEAK

- LUIS ORDUÑA -

Tuba goi-mailako irakaslea (Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioa), Tuban Masterra (Escola Superior de Música de Catalunya-ESMUC), Lizentziatura irakaskuntzak Soziologian (Nafarroako Unibertsitate Publikoa), Orkestra Zuzendaritzan gradua (Euskal Herriko goi-mailako musika ikastegia - Musikene) eta Musikologia doktoratzen (Madrilgo Unibertsitate Komplutensea).

Interpretatzaile bezala Euskal Herriko Gazte Orkestraren (EGO) eta Espainiako Gazte Orkestra Nazionalaren (JONDE) kide izan da.

Bilbo, Irun, Albatera (Alikante), Galdakao eta Zumaiako bandak zuzendu ditu beste askoren artean, hala nola, Frits Damrow, Gilles Milliere, Jamie Williams edo Eric Aubier bezalako bakarlariak. Baita konpositore nabarmenen obrak estreinatu ditu, besteak beste, Otto M. Schwarz, Thierry Deleruyelle eta Ferrer Ferran.

Gaur egun, Gasteizko Udal Musika Bandan karrerako funtzionari bezala dago, tuba bakarlari postuan, eta Zumarragako, Durangoko, Sakanako Haize Berriak eta Tolosako Santa Maria Kaperako bandak zuzentzen ditu.

SORTZAILEAK

- ODEI DOMINGO -

Magoa, aktorea, umorista, aurkezlea eta showmana. Espainiako Ilusionismo Elkartearen kide 2011tik, bere konpainia propioa sortzen du 2014an. Estreinatutako 5 ikuskizunek, egindako 700 emanaldi baino gehiagok eta bere lana ikusi duten 10 probintzia desberdinek bere lana bermatzen dute.

Formatu txikitik formatu handirainoko ikuskizunak ekoizten ditu, ekitaldiak pertsonalizatzen ditu eta eskolentzat zuzendutako ikuskizun hezigarriak garatzen ditu.



Gainera “Niko, banpiro txiki bat” familientzako musikalaren biran murgilduta dago, non magia egiteaz gainera dantza, abestu eta interpretatzen du; eta 2019an “Ezinezkoaren logika” estreinatzen du, bere formatu handiko lehenengo ikuskizuna zeinari buruz hurrengoa esaten du: “azkenean, txiki izanda magoa izan nahi nuenean amets egiten nuena lortu dudala esan dezaket”

Bere bezero nabarmenen artean Iruña edo Donostia bezalako udaletxeak daude, C.A. Osasuna edo Port Aventura bezalako enpresak eta komunikabide desberdinak.



Cía Mago Hodei Magoa
Tel. 646 236 649
info@magohodeimagoa.com
www.magohodeimagoa.com



TEASERRA ET'A BIDEO LABURPENA ESKURAGAI
www.magohodeimagoa.com/magicmelody-euskera